

Herrera

Azken baserria arriskuan

Herrerako bizilagunak ez daude ados Udalak auzoan egin nahi dituen zenbait aldaketekin. Besteak beste, errepide bat egin eta Peruene baserria bota nahi dute. Ezadostasuna adierazteko Herripe Auzo Elkarteak 371 sinadura bildu zituen abenduan.

Sara Soria



Udalak 1991n Plan Orokorra egin zuenean, Herreran zenbait zaharberritze lan egitea aurreikusi zuen. Auzotarrak, baina, ez datoz bat aldaketekin. Izan ere, beraien ustez, duela hamabi urteko auzoak eta gaur egungoak ez dute zerikusirik. Adibidez, Udalak N-1erako lotura aldatu nahi du. Hala, Herrera pasealekua eta Txingurri zuzeneko errepide baten bidez lotzea aurreikusi du. Errepide hau egungo trenbidearen parean joango litzateke. Auzotarren ustez, errepide hori egiteak ez du zentzurik. Herri-

pe Auzo Elkarteko kide Miguel Angel Zapirainek dioenez, "laster A-8 autobideak, Donostia eta Errenteria artean, bi bide izan ordez, hiru izango ditu. Hori dela eta, Herrera inguruko trafikoa murriztu egingo da eta bide hori ez da beharrezkoa izango".

Aldaketak plazan

San Luis plazan ere zenbait aldaketa egitekoak dira. Bate-tik, Herrerako azken baserria, Peruene, bota nahi dute. Zapirainen hitzetan, "Peruene baserria babestea Herreraren izaera babestea da. Udalak gizarte erabilera eman beharko lioke, Casaresekin egin zuen bezala".

Ilde honetatik, Altzako Historia Mintegiko kideek azaldu digutenez, "Peruene XVIII. mendeko baserria da. Guk azterketa historikoa egin nahi genuen bertan, inguruan errota eta harraska zahar baten aztarnak egon daitezkeelako. Hala ere, mota horretako azterketak babestutako eraikinetan besterik ez omen dira egingen, eta Peruene babestu-

rik ez dagoenez, ezin izango dugu azterketarik egin".

Baserriaz gain, inguruko etxe bat ere bota nahi du Udalak. Zapirainek esan digunez, "1991n Udalarekin adostu genuen etxe hori botatzea eta plazan bertan berreraikitzea. Orain, berriz, Udalak etxe horretako bizilagunentzako eraikina Bertsolari Txirrita inguruan egin nahi duela dirudi. Ez gaude ados, hor nahikoa etxea dagoelako jada".

Usadioari eutsiz

Urteroko ofituran jarri aiki, joan den asteartean, Santa Ageda bezperan, 50 bat lagun euriari eta haizeari aurre eginez, kantu kantari aitu ziren Herrerako kaleetan zahar Ondoren, Herrerako Kiroi Elkarteak bapora araldi zituen.



Mus txapelketa

Urtetako ezala, Eusko Giza Elkartek mus txapelketa antolatzen du. Izena emateko epea martxoaren 17. arte dago zaharrek eta pikoteakotzak 18 alre ordaindu behar dituzte parte hartzeko. Txapelketa otsailaren amaieran hasiko da eta partidak astelehenean, osteko eta biartean jokatuko dira. 20.00etan, Eusko Giza Elkartean en egotuzan (San Antonio 70-72).

euskararen donostia

patronatu



Donostiako Udalak Ayuntamiento de San Sebastián

Antzerkia

- "Meza" AEK, Tentazioa Koldo Izagirrek idatzitako Metxa liburuan oinarritua Otsailaren 21 eta 22an, 20.00etan Antzoki Zaharrean

Haur antzerkia

- "Zapatak" La Sal teatroa Otsailaren 8an, 18.00etan Lugaritz Kultur Etxean
- "Erreka Mari" Txotxongillo taldea Otsailaren 9an, 18.00etan Antzoki Zaharrean

Dantza

- "1937. gogoaren bidezidorretatik" Kukai, Tanttaka Otsailaren 14 eta 15ean, 21.00etan eta 16an, 20.00etan Antzoki Zaharrean

Pailazoak

- "Tako, Pimtx eta Porrotx" Otsailaren 16an, 16.30etan eta 18.30etan Antiguako Pio Baroja kiroldegian